48 18

SAN MAMESEKO ARKUA

“San Mamés” futbol zelaia 1913an eraiki zen eta hainbatetan handitu egin zen.

1945eko handitze lanetan, altzairuko arku handi bat ipini zen mendebaldeko tribunaren estalkian, eta hura futbol zelaiaren eta baita Klub beraren berezko ezaugarrietako bat bilakatu zen. Carlos de Miguel, José Antonio Domínguez eta Ricardo Magdalena arkitektoek eta Carlos Fernández Casado ingeniariak proiektatu zuten, eta hari esker, estalkia eusteko zutabeak baztertu ahal izan zuten, estalki hura zuzenean Arkura tenkatzen baitzen. 1982. urtean aldaketa txiki bat egin zen.

San Mamés futbol zelaia 2013. urtean eraitsi zen eta herria hainbatetan mobilizatu ondoren, Arkuari indultua ematea erabaki zen, beraz, desmuntatu, zaharberritu eta Athletic de Bilbao taldeak Lezama herrian dituen instalazioetara garraiatu zen eta zehazki, bigarren taldeak bere partidetan erabiltzen duen zelaiaren albo batera.

Arkua oso handia denez (112 m luzera), bere gorabeherak ikus daitezke 2012, 2014 eta 2015eko urteen ortoargazkien bidez.



Ortoargazkia 2012 Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi.

Arkua bere jatorrizko kokapenean, San Mamés futbol zelai zaharraren mendebaldeko tribunaren estalia eutsiz.



Ortoargazkia 2014. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. Geografia Erakunde Nazionala.

Arkua, hainbat sekziotan zatituta, Athletic de Bilbao taldeak Lezaman duen instalazioetako aparkalekuan instalatzearen zain dago.



Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi.

UTM 30N ETRS89 X: 513107 m Y: 4791606 m Z: 57 m.

Lezaman behin betiko instalatutako arkua, “San Mamés” zaharreko erlikia gisa, Klubaren bigarren taldeak erabilitako futbol zelaiaren bandetako bat okupatuz.